

Populorum Progressio. Andik urte betera



KRISTAUDIAREN PEKATUA

Urte bete, Paulo seigarrenak dei larri bat egin zuala mundu osoari azitzen dijoazten nazio ta herrien alde; gai honez Aita Santu batek egindakoetan lenengoa. Behar bada Eleiz-idazkitan erabiltzen ez dan izkerakin, beltza zana beltza bezela azalduaz, zuri zana herriz zuri —gehiegi ez, zoritxarrez, gai honetan—.

Han ta hemen arrera ona zan zun. Komunistak berak ere —Prantzia'n ta— ontzat ta beretzat artu zuten asmo-aldetik beintzat naiz jokabideetan bat ez etorri. Mundu guzian kontzientzia astindu zuan.

Orain gizaldi bat gizarte auzia, nagusi ta langilleen artean mugatzen zan. Gaur herriz, gizarte-auzi nagusia herri aurreratu ta atzeratuen artean dago. Izan ere, nazio aberatsak geroago ta aberatsago ta beartsuak beartsuago azaltzen zaizkigu. Edo gutxienez, aurreratutak azkarrago dabilzala bere aurrerabide ibillian eta atzeratuen eta aurreratuen artean dagon aldia geroago ta audiagoa dala. Nora goaz, jaunak?

Hau guzia ikusiaz, ekonomiaren oinarriak aztertu beharra dago. Kapitalismoak kulpa aundia dauka gai honetan. Oinarri ta zimentu hoiek ziara aldatzen ez diran bitartean, ez dago zer eginik. Ta kapitalismotaz iritzi ta hitz gogorrek zekarzkin enziklika honek. Izan ere, munduaren martxa diruaren esku, dirudunen esku jartzen baidu xixtema honek eta dirudunen eta mundu osoaren beharrak eta asmoak ez dira hain elkartu-errezak. Batekoz bestera gehiengan.

Honela, gu ez gera gehiegi arritzen New Delhi'n gertatu danakin. Orain dala egun gutxi India'ko kapital honetan, herri aberats ta pobreak alkartu dira elkarren arteko ekonomi-artuemanak zuzentzeko. Egunkari batek keja hau azaltzen zuan: aberats hoiek ez dira gauza izan beren emantzaren 100' tik 1 herri atzeratuentzat uzteko.

Guk hauxe esango genduke. Alde batetik, ez gera gehiegi arritzen. Baiña bestetik, erabaki hau ontzat eman izan bazuten ere, etzan naikoa izango. Ez da gutxiagorik ere. Hirugarren munduak bere eskubideak ba dauzka eta honen auzia ez du konponduko herri aurreratuen limosna zikin batek.

Baiña auzi hau dala-ta, ba dugu beste pentsakizunik. Herri aurreratutak Kristaidiko herriak ditugula. Hau da, mailla hontako herririk gehienak, gutxienez Kristoren erlijioak kutsututakoak dirala —protestante, ortodoso ta katoliko— eta gehienak kristautzat beren burua aitortzen dutela. Nun da Nazareth'eko Langillea?

Ogeigarren gizaldiko gizarte-auzia, herri aurreratu ta atzeratuen artean dago eta ia-ia Kristaidiko ta Kristaidiko ez diran herrien artean. Jakiña, Kristauditaz mintza naiz, ez Kristautasun'etaz. Gai honetan Kristaudiak menderatzeko bideak —xixtima— sortu ditu, ez gizonak eta herriak anaikiro bizitzeko. Hona emen Kristaudiaren pekatu larria, «Populorum Progressio» horrek arpegira botatzen diguna.

A. L.